BASABURUA
153. ALEA - 2018KO URTARRILA



BASABURUKO
UDAL BULETINA
Erredakzioa: Ametza

www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

# HERRITARREN PARTE-HARTZEAREKIN BERRITUKO DA UDAL HIRIGINTZA PLANA

Basaburuko Udalean hirigintza plana berritzeari ekingo diogu aurki, indarrean dagoen plana jada zaharkiturik gelditu baita. 1983koa da egungoa eta beharrezkoa zaigu gaur egun bailarako herritarrek dituzten beharretara eta errealitatera egokitzea eta arautegia aldatzea. Proiektua lehiaketara atera eta gero Jose Ignacio Arribas arkitektoari 63.000 eurotan esleitu zaio planaren egokitzapena erredaktatzeko eginkizuna. Nafarroako Gobernuak zenbateko horren %80 hartuko du bere gain.

Lan mardula da eta denboran luze joango den arren, gai garrantzitsuenak herritarren parte-hartzearekin eztabaidatu eta adostu nahi ditugu. Esther Lakasta, Basaburuko Alkatea: “*Basaburuko herritarrekin batera adostu nahi dugu herri bakoitzak behar dituen hornidurak, nondik zabaldu herriak, zein behar dituzten, energia nola aurreztu…*”. Helburu nagusia Basaburua bizirik mantentzea eta bertan bizi diren pertsonen bizi kalitatea hobetzea da. Arbasoengandik jasotako lur eremu eredua babestuz, hazkunde orekatua sustatuz eta etxebizitzen tipologia eta balore arkitektonikoa mantenduz besteak beste.

# EL PLAN URBANÍSTICO MUNICIPAL SERÁ RENOVADO Y CONTARÁ CON LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

En el Ayuntamiento de Basaburua se va a proceder a renovar el plan urbanístico. El actual fue redactado en 1983 y es necesario adaptarlo a las necesidades actuales y a la realidad de nuestro valle. El proyecto ha sido adjudicado al arquitecto José Ignacio Arribas por valor de 63.000 euros, de los cuales el 80% se hará cargo el Gobierno de Navarra.

Aunque será un trabajo complejo, queremos debatir y acordar los temas más importantes con la participación de las vecinas y vecinos. El objetivo principal es mantener vivo nuestro valle y mejorar la calidad de vida de las personas que viven aquí.




## ALEGAZIOAK AURKEZTU ZAIZKIO EDERBIDEAKO IBILBIDEA MANTENTZEKO HITZARMENARI

2016an ekin zion Nafarroako Gobernuak Ederbidea proiektua martxan jartzeari. Bizikletaren erabilera sustatzeko proiektu honek Iruñea, Donostia eta Lapurdi lotuko ditu 240 kilometroko ibilbide baten bitartez. Ederbideak Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak lotzea aurreikusten du eta tartean Basaburuatik ere pasako da. Bailarako kontzeju gehienak zeharkatuko ditu eta horretarako egun dauden bideak erabiliko dira, kontzentrazioko bideak nahiz herrien arteko bideak.

Azaroan, Nafarroako Gobernuko Turismo Zerbitzuak bidalitako hitzarmen proposamen bat jaso genuen Udalean Ederbideako sarearen kudeaketari buruzkoa. Bertan sareen mantentzea tokiko entitateen esku geldituko dela zehazten zen. Hitzarmenean biltzen ziren hainbat zehaztapenekin ados ez geundenez hainbat alegazio aurkeztu genituen, guk proposatutako aldaketekin.

## SE HAN PRESENTADO ALEGACIONES AL CONVENIO SOBRE EL MANTENIMIENTO DE LA RED DE EDERBIDEA

Ederbidea es un proyecto para impulsar el uso de la bicicleta que unirá Pamplona, San Sebastián y Lapurdi. Un recorrido de 240 kilómetros. Se prevé unir la vía verde del Bidasoa con la del Plazaola y también pasará por Basaburua. Atravesará la mayoría de los concejos y para ello se utilizarán las vías que existen actualmente, tanto las vías de concentración como las que sirven para unir los pueblos.

En noviembre, recibimos en el ayuntamiento una propuesta de convenio por parte del Servicio de Turismo del Gobierno de Navarra sobre la gestión de esa red. Según recogía el convenio, serán las entidades locales las que se harán cargo del mantenimiento de esas vías. Se han presentado varias alegaciones a dicho convenio.

## 29.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA JASO DA

Udal eraikineko 2. pisuan, alokairu sozialerako bi etxebizitza berritu genituen eta dagoeneko bi familia daude bertan bizitzen. Proiektuaren egikaritza behin-betiko onartu da eta 29.000 euroko diru-laguntza jaso berri dugu.

## 29.000 EUROS DE SUBVENCIÓN

Ya hay dos familias viviendo en cada una de las viviendas renovadas en el segundo piso del Ayuntamiento. Recientemente hemos recibido una subvención que asciende a 29.000 euros aprobando así definitivamente el fin de obra.

## BASABURUKO ADINDUEK EUREN LOKALA IZANEN DUTE APEZTEGIBERRIN

Apeztegiberriko 1. pisuko espazio bat egokituko da adinduendako. Gizarte Batzordeak azken hilabeteotan hainbat bilera egin ditu kontzejuetan adinduek dituzten beharrak eta euren iritzia jasotzeko eta lokalari emanen zaion erabilera finkatzeko. PDR diru-laguntza atera da eta bertan erabilera anitzetako lokalen egokitzapena diruz laguntzen denez, proiektua aurkeztuko da.

## LAS PERSONAS MAYORES DE BASABURUA TENDRÁN SU PROPIO LOCAL EN APEZTEGIBERRI

Se va a renovar un espacio del primer piso de Apeztegiberri para las personas mayores. En los últimos meses la Comisión de Sociedad se ha reunido con las vecinas y vecinos mayores de los concejos para recoger sus necesidades y opiniones y definir así el uso que le dará al local. El proyecto se presentará a las subvenciones del PDR.



## BASABURUKO HIRU HERRIETAN ZABALDUTAKO FIBRA SAREARI BURUZKO OHARRA

Jakin dugu auzokide batzuen artean ezinegona sortu dela zabaldutako fibra sarearen inguruan eta abiadura handiko internet zerbitzua noiz hasiko den eskaintzen ezagutzeko jakinmina piztu dela.

Udal honen zerbitzu juridikoak eta egindako bestelako kontsultek argi utzi digute **legalki sarea ezin diogula ez esleitu, ezta dohainik utzi ere**, zuzenean zein zeharka, ezein operatzaileri.

Horretarako behar beharrezkoa dugu **operatzaile enpresa publikoa** sortzea, zabaltzen ari garen sare hau kudeatu ahal izateko. Noski, udala honetan lanean ari da. Tramiteak hilabeteak beharko ditu, eta kontsultatuko inor ez da ausartu eperik zehaztera.

Herritarroi helarazi nahi dizuegu Udal honek, inork baino gehiago, interesa duela ahalik eta laisterren funtsezkotzat daukagun zerbitzu hau martxan jartzeko, eta honetarako ahalegin ekonomiko handia egiten ari gara. Ez izan zalantzarik lanean jarraituko dugula baliabideak optimizatzeko, aukerarik onenak bilatzeko eta ahalik eta azkarren bailara osoan sarea hedatzeko.

## NOTA SOBRE LA RED DE FIBRA DESPLEGADA EN TRES PUEBLOS DE BASABURUA

Hemos tenido conocimiento de que existe cierta impaciencia entre algunos vecinos de los pueblos en los que ya se ha desplegado la fibra, por saber cuándo se va a comenzar a ofrecer el servicio de Internet en alta velocidad.

Tanto los servicios jurídicos así como todas las consultas realizadas nos han dejado claro que **legalmente no podemos adjudicar ni ceder la red**, directa o indirectamente, a ninguna operadora.

Nos es necesario crear previamente una **empresa operadora pública** que será quien pueda gestionar las redes que estamos creando. El Ayuntamiento por supuesto, ya está trabajando en ello. La tramitación durará algunos meses, sin que nadie se haya atrevido a concretarnos más los plazos.

Queremos haceros llegar que este Ayuntamiento está tan interesado como el que más en poner cuanto antes en marcha un servicio que entendemos es esencial, y para el que se está realizando un esfuerzo económico importante. No tengáis duda de que seguiremos trabajando para optimizar los recursos, buscar las mejores opciones y completar lo antes posible la red en todo el valle.

## URTARRILAREN 29AN AMAITZEN DA FRONTOIKO TXAPELKETETAN IZEN EMATEKO EPEA

Emakumeen Arteko 1. Eskuzko Pilota Txapelketa antolatu du Basaburua eta Imozko Kirol Batzordeak. Beharrezkoa izanen da 15 urtetik gorakoak izatea eta bikoteka izen ematea. Partiduak ostiralerako arratsaldeko 19:00etan izanen dira Latasako frontoian. Bestetik, Emakumeentzako Frontenis Txapelketa eta Gizonezkoentzako Paleta Goma Txapelketa antolatu ditu batzordeak. Parte hartu eta eman izena urtarrilaren 29a baino lehen honako telefono zenbaki hauen bitartez: 680884329 / 659443664.

## EL 29 DE ENERO FINALIZARÁ EL PLAZO PARA APUNTARSE EN LOS CAMPEONATOS DEL FRONTÓN DE LATASA

La Comisión de Deporte de Basaburua e Imotz ha organizado el Primer Campeonato Femenino de Pelota. Los partidos se jugarán los viernes a las 19:00 de la tarde en el frontón de Latasa. Además, se ha organizado el Campeonato Femenino de Frontenis y el Campeonato Masculino de Paleta Goma.




## GUNE PUBLIKOKO ESTABLEZIMENDUEN SEINALIZAZIOA ARAUTU DA

Azken urteotan hainbat eskaera jaso izan ditugu bertako establezimenduen aldetik seinalizazioa jartzeko interesarekin. Eskaera horiei erantzunez, Udalean Gune publikoan sartzen diren Basaburuko establezimenduen seinalizazioa arautu eta bateratu egin dugu.

Orain arte norberak bere seinaleak jartzen zituen, hemendik aurrera ordea, seinaleek ezaugarri berdinak izanen dituzte, tamaina, materiala, kolorea... Eta Basaburuko marka sustatzeko logoa ere eramanen dute.

## SE HA REGULADO LA SEÑALIZACIÓN DE LOS ESTABLECIMIENTOS DE LA ZONA URBANA

Como respuesta a las peticiones recibidas en los últimos años, en el ayuntamiento hemos regulado y unificado la señalización de los establecimientos de Basaburua que estén en la zona urbana. De aquí en adelante las señales tendrán las mismas características, el tamaño, el material, el color...

AKTAK WEBGUNEAN ESKURAGARRI
www.basaburua.org

# TIPI-TAUPA: MENDI BUELTA BATEN AITZAKIAREKIN ELKARTZEA

**Duela hiru urte jarri zuen martxan Gizarte Politika eta Osasunaren Batzordeak Tipi-Taupa ekimena. Hasi eta berehala batu ziren Gartzarongo Maria Luisa Beunza eta Udabeko Patxi Biurrarena.**

**Zenbat jende biltzen zarete Tipi-Taupako ateraldietan?**
**Mª Luisa:** Hamasei lagun inguru, baina azkenekoak oso arrakastatsuak izan dira, 23 pertsona elkartu ginen aurrekoan.
**Patxi:** Eguraldiaren arabera, eguraldi txarra egiten badu edo inguruko herrietako festak direnean jende gutxiago azaltzen da.

**Hilabeteko azken igandeetan elkartzen zarete...**
**Mª.L.:** Bai, goizeko bederatziak edo hamarrak aldera toki batean gelditzen gara irteteko. Normalean haranean barna egiten diren ibilbideak izaten dira. Bi edo hiru orduko buelta izaten da, tartean gosaldu eta bazkaltzera etxera.

**Eta zer moduzko giroa izaten da?**
**Mª. L.:** Oso ona. Ibilbideak pertsona ezberdinekin hitz egiteko aukera ematen dizu. Ekimena irekia da, edonor etor daiteke. Bukaeran elkarte edo ostatu batean pintxo bat jaten dugu normalean eta gero etxera. Oso positiboa da, askotan haranakoak izan arren egunerokoan harremanik ez duzun jendearekin topatzen zara eta elkar ezagutzeko balio digu.
**P:** Ez da mendi martxa bat, mendi buelta baten aitzakiarekin elkartzea eta paseo bat ematea da helburua, patxadaz eta elkarrekin hitz eginez. Oso polita da. Niri gazte gehiago animatzea gustatuko litzaidake. Dagoeneko hasi dira batzuk eta ea pixkanaka gehiago etortzen diren...

*"HARANEAN BARNA EGITEN DIREN BI EDO HIRU ORDUKO IBILBIDEAK IZATEN DIRA"*

*"SON RECORRIDOS DE DOS O TRES HORAS QUE SE HACEN DENTRO DEL VALLE"*

# TIPI-TAUPA: JUNTARNOS CON LA EXCUSA DE UNA SALIDA MONTAÑERA

**Hace tres años que la Comisión de Políticas Sociales y Salud puso en marcha el proyecto Tipi-Taupa. Una iniciativa en la que participan casi desde sus inicios María Luisa Beunza y Patxi Biurrarena.**

**¿Cuánta gente os soléis reunir en las salidas de Tipi-Taupa?**
**Mª Luisa:** Las últimas han sido todo un éxito, alrededor de 23 personas.

**Las salidas se organizar el último domingo de cada mes...**
**Mª. L.:** Sí, solemos quedar hacia las nueve o diez de la mañana. Normalmente son recorridos que se hacen dentro del valle, de alrededor de dos o tres horas.

**¿Y qué tal ambiente tenéis?**
**Mª. L.:** Es una iniciativa abierta a todas las personas que quieran venir. Al finalizar el recorrido solemos comer un pintxo en alguna sociedad o posada. Es muy positivo, a menudo aunque todos seamos del valle, en el día a día no tenemos trato con algunas personas y esta iniciativa nos sirve para juntarnos.
**P:** No es una marcha montañera, el objetivo es que con la excusa de una salida montañera nos podamos juntar. Ya han empezado a venir personas más jóvenes y espero que poco a poco se vayan animando más...

